

KANALAK

Gure bezeroek zerbitzua erabiltzeko, ez da beharrezkoa izango denda propio bat izatea, onlineko zerbitzua delako, baina hala ere, zerbitzu hau ezagutarazi eta bezeroak lortzeko, publizitatea nahitaezkoa izango da. Sare sozialak izango dira gure publizitate kanal nagusia. Alde batetik guk zabalduko dugu, gure sare sozialetan ezagutzera emanez edota lagunei webguneari buruzko informazioa zabalduz, eta bestetik hainbat ikastetxerekin kontaktuan jarritz, hauek beraien zentroetan webgunearen berri emateko.

Adibide gisa, hemen doakizue Instagram sare sozialarekin jarraituko dugun protokoloa:

Bertan kontu bat sortzea izango litzateke lehen urratsa. Ondoren gure kontu pertsonaletatik zabalduko genuke (instastory-en bidez eta argazkiak igoz). Gure jarraitzaileekin partekatzeaz gainera, hauei ere Sexinf zabaltzeko laguntza eskatuko genieke, hauek berdina egin dezaten eta ahalik eta pertsona gehienen eskutara hel dadin informazioa. Bukatzeko, Sexinf-eko perfiletik jendea jarraitzen hasiko ginateke eta bertan hasiko genuke “influencer” euskaldunekin kontaktua. Hauek beraien perfiletan publizitatea besterik ez lukete egin beharko.



Gure proiektua ezagutzera eramateko hainbat ekintza jarriko ditugu martxan. Gazte jendearen komunikazio modu erabiliena sare sozialak dira, beraz, hori aprobetxatuko dugu beraiekin lehen harremana egiteko, adibidez, Facebook eta Instagram bezalako sareetan perfil bat irekiko dugu publizitate leiho gisa. Horren barnean, “Influencerrek”, hau da, sare sozialetako pertsona famatuak, gazteengan duten eragina kontuan hartuta, euskal “influencerrekin” harremanetan jarriko gara Sexinf promozionatzeko. Bestalde, herrietako

ikastetxeekin akordioak egingo ditugu bertara hitzaldiak ematera joateko eta bide batez, webgunea azaltzeko.

Ondoren erabilera kanalari dagokionez, bezeroek gure zerbitzua erabiltzeko interneten webgunearen helbidera (www.sexinf.eus) sartu eta hura saltseatu besterik ez dute egin beharko. Gurekin harremanetan jarri edota galdera zehatzak egin nahi badizkigute gurekin kontaktatzeko moduak zehaztuko dira (e-mail, telefonoa, aurrez-aurrekoa eta sare sozialak). Foroan parte hartzeko aukera ere izango dute erregistratuz gero.